

BEZEROEKIKO HARREMANA



Bezero berriak erakartzeko, hainbat herri eta hirien udalekin kontaktuan jarriko gara, gure ideia haiei eskainiz eta nolako ondorioak izango lituzkeen haien ingurune zein biztanleen bizitzetan adieraziz. Ondoren, gure bezeroak mantentzeko laguntza pertsonala eskainiko diegu. Udalek gure enpresari deitzeko gaitasuna izango dute, eta guk haien kexak, galderak eta gehiago entzuteko konponbide pertsonalatuak edo zehatzak emango dizkiegu, haiek gure zerbitzuarekin pozik egon daitezten. Guri kexak, galderak eta proposamenak adierazten dizkiguten bakarrak udalak ez izateko, makinan bertan, kontaktatzeko informazioa eskainiko dugu. Han, email, telefono zenbaki eta SMS bitartez kontaktatzeko informazioa egongo da; izan ere, gure makina horien erabiltzaileen proposamen eta galderak garrantzitsuak iruditzen zaizkigu enpresa bezala hobetu dezagun. Gainera, dena ondo joango balitz Webgune bat eta sare sozialak sortuko genituzke gure ekimenari oihartzun handiago bat emateko. Komunikazio kanal hauek kudeatzeko arloan espezializatuta dagoen langile bat kontratatzea aurreikusten dugu. Webgune horrek gure bezeroekin harreman estuago bat lortzea du helburu, informazio guztia ahalik eta argien helaraziz, horrela gure proiektua eta bide batez gu ere hobeto ezagutu gaitzaten.